

## Eleak/Libre Dinamika

Bere txikitasunean, azken urteotan eskubide zibil eta politikoen alde eta epaiketa eta espetxeratzeen aurka bizi izan ditugun borrokek oihartzun handia lortu dute. Bereziki une desobediente masiboenetan, Askeguneen eta Herri Harresien uneetan.

Oihartzunaren uhinak ez dira Euskal Herrira mugatu, nazioartera ere hedatu dira. Elkartasun eta konpromisoa heldu zaigu ondoren bueltan, hainbat modutan. Adibide batzuk ematearren: Epaiaketen edo espetxeratzeen aurkako dinamiketan, nazioarteko mugimendu herritar askok bidali izan dizkigute auzipetuen aldeko elkartasun eta atxikimendu mezuak; Gasteizko harresia, *trending topic* izan zen Alemanian egun batez, bertako herritarren jarrerari esker; Madrilen, Alfonen inguruan babesia antolatzeko herri harresien filosofiari heldu zioten; herrialde Katalanetatik hainbat aldiz deitu digute eurekin gure bizipenak eta hausnarketak konpartitu genitzan.

Argi dugu gure oinarrizko eskubideen aldeko eta salbuespen politiken aurkako borroka hemen, gure herrian pizten ditugun indarren arabera irabazi edo galduko dugula. Baina argi dugu ere internazionalismoak elikatu egiten gaituela. Pozgarria zaigu hortaz Askapenarekin batera ekimen honetan parte hartzea. Helburu bikoitza dugu gure aldetik. Bata, gure bizipenak eta hausnarketak ahalik eta lagun gehienekin konpartitzea, elkartasuna indartzeko asmoz. Bestea, bidean aurkituko ditugun lagunei entzutea, gure borroketarako baliagarriak izan daitezkeen erremintekin bueltatzeko Euskal Herrira.

## Askapena

Euskal Herrian Eskubide zibil eta politikoen aldeko borroka ez da amaitu, Euskal militanten kontrako epaiketa politikoak amaitu ez diren bezala. Kurtso honetan oraindik 16 kideren kontrako 2 epaiketa politikori aurre egin beharko diogu. *AZNUGAL* eko kideak nola *Basque lives matter*eko kideak Audientzia Nazionalan kartzela zigorrei aurre egin beharko diote torturapean jasotako konfesioen bidez. Zentzu honetan elkartasun guztia garrantzizkoa izango da herri honetan ematen diren epaiketa politiko guzti hauekin bukatzeko eta gureak diren eskubide zibil eta politikoak eskuratzeko.

Errebindikazio honek Euskal Herrian duen garrantzia ikusirik, Askapenak eta Eleak/Libre dinamikak, hurrengo hilabeteetan mundu osoan zehar, Euskal Herriaren Lagunak, Euskal Herriko elkartasun komiteek egingo duten dinamika berria aurkezten dugu. Askapenako 5en aldeko elkartasunean egindako lanaren ondotik, Euskal Herrian epaiketa politikoen egoeraren sozializazio dinamikarekin jarraituko dute. Horretarako hainbat ekimen eramango dira aurrera:

Alde batetik *“Desobedientzia: elkartasunetik konpromisora!”* dokumentalaren proiektzioak egingo dira. Honekin, herri harresien inguruko lanketa egingo da eta auziperatuen injustziaren aurrean hartzen den defendatzeko konpromisoa jarriko da erdigunean.

Bestalde, Auziperatu ezberdinekin hitzaldi ezberdinak egingo dira. Hauetan atxiloketaz, torturaz, espetxeratze prebentiboaz, epaiaketa, gastu ekonomikoaz... suposatzen duenaz arituko dira. Euskal Herrian Epaiketa politiko batek suposatzen duenaz alegia.

Azkenik, arazo honen sozializatorako ekimenak burutuko dira: esku horrien banaketak, herri bazkariak, nola eskubide zibil eta politikoen aldeko festak.

Oraindik ekimen ugari isteko geratzen diren arren, gaurkoan leku hauetan ekimenak egingo direla esan dezkegu: Paris, Madrid Paisos Catalans, Italia, Alemania, Eskozia, Argentina, Venezuela, Andaluzia... Aurrera doazen einen publiko egiten joango gara.

Elkartasuna herrien arteko xamurtasuna delako,

**Epaiketa politikorik ez!**

**Eskubide zibil eta politikoak Euskal Herriarentzat!**